



Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

GIMNASIA ERRITMIKOA

1.- PARTE HARTZEKO ARAU OROKORRAK

1.1 ENTRENATZAILEAK ETA EPAILEAK

Entrenatzaileak:

- Eskola lizentzia eduki behar dute, urtean kurtsokoa.
- Jarraian zerrendatutako tituluetakoren bat eduki behar dute:
 1. Gimnastika Erritmikoko goi mailako teknikariaren titulua (3. maila)
 2. Gimnastika Erritmikoko erdi mailako teknikariaren titulua (2. maila)
 3. Gimnastika Erritmikoko oinarrizko teknikariaren titulua (1. maila)
 4. Gimnastika Erritmikoko monitore titulua (AGFko ikastaroa edo antzekoa)
 5. AFako eskola kirolaren begiralearen ikastaroa

Epaileak:

- Autonomia Erkidegoko, Estatuko edo Nazioarteko Gimnasia Erritmikoko epailearen titulua eduki behar dute.

2.- ARAU TEKNIKOAK

2.1. LEHIAKETA SISTEMA

Talde edo maila desberdinetan egingo da lehiaketa, eskakizun teknikoen eta aparatuen arabera.

I. TALDEA – A MAILA

MAILAK	APARATUAK		ESKAKIZUN TEKNIKOAK
	BANAKA	TALDEKA	
BENJAMINAK	E.L. eta pilota	6 E.L. 5 E.L.	AGF Araudian ezarritakoak
KIMUAK	E.L. eta Uztaia	5 edo 6 pilota	AGF Araudian ezarritakoak
HAURRAK	Uztaia eta Pilota	5 edo 6 uztai	AGF Araudian ezarritakoak
KADETEAK	Uztaia eta soka	Uztaiak eta pilotak	AGF Araudian ezarritakoak



II. TALDEA – B MAILA

MAILAK	APARATUAK		ESKAKIZUN TEKNIKOAK
	BANAKA	TALDEKA	
BENJAMINAK	E.L. eta pilota	5 edo 6 E.L.	AGF Araudian ezarritakoak
KIMUAK	E.L. eta Uztaia	3 edo 2 E.L. eta 3 pilota	AGF Araudian ezarritakoak
HAURRAK	Uztaia eta pilota	6 edo 5 uztai	AGF Araudian ezarritakoak
KADETEAK	Uztaia eta soka	Uztaiak eta pilotak	AGF Araudian ezarritakoak

III. TALDEA – C MAILA

MAILAK	APARATUAK		ESKAKIZUN TEKNIKOAK
	BANAKA	TALDEKA	
BENJAMINAK	E.L. edo pilota	5 E.L. edo 6 E.L.	AGF Araudian ezarritakoak
KIMUAK	Pilota edo uztaia	3 edo 2 E.L. eta 3 pilota	AGF Araudian ezarritakoak
HAURRAK	Uztaia edo pilota	5 edo 6 uztai	AGF Araudian ezarritakoak
KADETEAK	Uztaia edo soka	Uztaiak eta pilotak	AGF Araudian ezarritakoak

2.2 . LEHIAKETAK ETA JARDUERAK

2017-2018ko ikasturtean honako jarduera hauek antolatuko dira:

- Eskolarteko elkarretaratzeak: Hainbat asteburutan egingo dira, lehenengo hiruhilekoan (esku libreak) eta bigarren hiruhilekoan (aparatuak).
 - 1. elkarretaratzea Benjaminak
 - 2. elkarretaratzea Kimuak
 - 3. elkarretaratzea Umeak
 - 4. elkarretaratzea Kadeteak
- Gabonetako topaketa.
- Otsailako topaketa



- Arabako Eskolarteko Jokoetako kontrolak (otsaila)
- Martxoko topaketak
- Arabako Eskolarteko Jokoetako kontrolak (martxoa)
- Apirileko topaketa
- Arabako Eskolarteko Jokoetako finalerdiak eta finalak.
- Lau Urtaroetako Txapelketa: hiru mailetako gimnastek parte hartu ahalko dute, Arabako Eskolarteko Jokoetan sailkatutakoek izan ezik.
- Maiatzeko topaketak: 3 talde edo mailetako gimnastek parte hartu ahalko dute, Arabako Eskolarteko Jokoetan eta Lau Urtaroetako Txapelketan parte hartzen dutenek izan ezik.
- Hastapenetako torneoa: Arabako Eskolarteko Jokoetan eta Lau Urtaroetako Txapelketan inoiz parte hartzen ez dutenek parte hartu ahalko dute
- Ikasturte amaierako jaialdia.

2.3. TXANDAKETAK ETA JARDUTEKO ORDENA

Aparatuen txandaketak kodearen hurrenkeraren arabera egingo dira, hau da: esku libreak, soka, uztaia, pilota, mazoak eta zinta.

Jarduteko hurrenkera zozketa bidez erabakiko da.

2.4. SAILKAPENA

Talde edo maila bakoitzerako sailkapen desberdinak egingo dira:

I. Taldea – A maila:

- Banako sailkapena: Bi ariketatan lortutako puntuazioak batuko dira.
- Taldekako sailkapena: Eginiko bi ariketatan lortutako puntuazioak batuko dira, taldearen gimnasta bakoitzekoa.
- Multzoko sailkapena: Egindako ariketaren notaren arabera

Banako, taldekako edo multzoko sailkapenetan berdinketarik gertatuz gero, RFEGren Arautegia aplikatuko da.

II. Taldea – B maila

- Banako sailkapena: Bi ariketatan lortutako puntuazioak batuko dira.
- Taldekako sailkapena: Eginiko bi ariketatan lortutako puntuazioak batuko dira, taldearen gimnasta bakoitzekoa.
- Multzoko sailkapena: Egindako ariketaren notaren arabera.

Banako, taldekako edo multzoko sailkapenetan berdinketarik gertatuz gero, RFEGren Arautegia aplikatuko da.

III. Taldea – C maila:

- Banako sailkapena: Egindako aparatuarengatik puntuazioa lortuko da.
- Taldekako sailkapena: Egindako ariketaren notaren arabera.



Banako edo taldekako sailkapenetan berdinketarik gertatuz gero, RFEGren Arautegia aplikatuko da.

2.5. EPAIMAHAIA

Arabako Gimnastika Federazioko Gimnastika Erritmikoko Batzorde Teknikoak epaileak izendatuko ditu epaimahaia osatzeko. Ahaleginak egingo dira epaimahai bikoitza jartzen bi ordu baino gehiago irauten duen txapelketetan.

Banako eta taldekako modalitateetan lau epaile taldek osatuko dute epaimahai bakoitza:

- 1-2 zailtasuna (gorputz zailtasunak)
- 3-4 zailtasuna (gorputz zailtasuna)
- 1-2 gauzatzea (huts artistikoak)
- 3-4 gauzatzea (huts teknikoak)

Ahalegina egingo da epaimahai bakoitza epaile kopuru egoki batez osatua egon dadin, zortzi epailez; honela banaturik:

- Exekuzioko 4 epaile
- 4 zailtasun epaile

2.6. MUSIKAK

Entrenatzaileek e-mail bidez bidaliko dituzte musikak, mp3 formatuan, horretarako ezartzen den epean, normalean, ekitaldiaren aurreko astean. Halaber, musika eramango dute ekitaldira, cd batean.

3.- DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria.

ARAUDI HONEK JASOTZEN EZ DITUEN JOKO EGOERA GUZTIAK KIROL AEROBICEKO ESTATUKO BATZORDEAREN JOKO ARAUEN ARABERA EBATZIKO DIRA, BAI ETA ARABAKO GIMNASIA FEDERAZIOAREN ARAUDI ETA ERREGELAMENDU ESPEZIFIKOEN ARABERA